

## Euspot 2015 lehiaketaren sari banaketa ostegunean

2015/05/05

Oraingo ostegunean, hilak 7, banatuko dira Euspot 2015 euskarazko spot lehiaketaren sariak. Ekitaldia egingo da Aretxabaletako Arkupe Kultur-etxean eta arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

Spot finalistak ikusi eta sariak banatzeaz gain, hitzaldia, musika eta luntxa ere egongo dira ekitaldian. Hala, **Kike Amonarriz** soziolinguista eta telebista aurkezleak berbaldia emango du euskara, umorea eta publizitatearen gainean. Bestalde, **Azkaiter Pelox** musikariak girotu egingo du sari banaketa ekitaldia. Garazi Aiesta Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko ikasleak gidatuko du gala. Ekitaldiari bukaera emateko, luntxa egongo da. Ekitaldia doakoa eta sarrera librekoa da.

Guztira, lau sari banatuko dira ostegunean:

1. Spotik onena: 1.000 euro.
2. MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasle onenaren saria: 500 euro.
3. Publikoaren saria: 500 euro.
4. Gazteen saria (14-18 urte): 250 euro.

Aretxabaletako Udalak, Arteman Komunikazioak eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak antolatzen dute Euspot lehiaketa. Aurtengo edizioan 35 spot aurkeztu dira *Autoak eta pertsonak: elkarbizitza orekatua* gaiaren gainean. Publikoaren sarirako, 2.500 bozkatik gora jaso dira.



euspot EUSKARAZKO SPOT LEHIAKETA 2015 4.e.d.2015

Sari Banaketa ekitaldia  
maiatzak 7  
19:00 / Aretxabaleta  
Arkupe kultur etxean

• Spot onena: 1.000€  
• Publikoaren saria: 500€  
• Mondragon Unibertsitateko ikasleen spot onena: 500€  
• Gazteen saria (14-18 urte): 250€

info+ euspot.eu  
@euspotlehiaketa  
/euspot

Arteman

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

arteman

Aretxabaletako Arkupe Kultur-etxean egingo da sari banaketa ekitaldia.